



Toti Martínez de Lezea

# *Artadi*

n a r r a t i b a

erej

ARTADI

n a r r a t i b a • 144

ere in

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2023ko maiatzean*

Jatorrizko izenburua:

*El Maizal*

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

Azaleko irudia:

Aritz Albaizar

Itzulpena:

Miren Arratibel

© Toti Martínez de Lezea

© EREIN. Donostia 2023

ISBN: 978-84-9109-894-2

L.G.: D 430-2023

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20569 Oñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

[gertugrafika@gmail.com](mailto:gertugrafika@gmail.com)

[www.gertu.net](http://www.gertu.net)



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.


Toti Martínez de Lezea

# ARTADI

Itzulpena:  
Miren Arratibel



# PERTSONAIA NAGUSIAK



1852

**H**ogei urteko ezkontzaren ondoren, Jainkoak eskainitako mirari gisa hartu zuen Elisaren jaiotza amak; bat-bateko lau hilaurtzek eta beste hainbeste ume akastun jaiotzean hilek galarazi zioten haur osasuntsu batez –kasu honetan, alaba batez– erditzeko itxaropen oro. Emakumea ez zen nekatzen alaba arakatzeaz, ezer falta ez zitzaiola behin eta berriro begiratzeaz, beti hari so egoteaz, aldamenean lo zuela, sehaskan, ametsa bete zain igarotako urte haietan bere eskuez brodatutako parpailez jantzirik. Begiak malkoz eta irribarrea ezpainetan, eskerrak eman eta eman ari-tzen zitzaien Ahalguztidunari, Ama Birjinari eta santu guztiei bere erreguei erantzuteagatik eta bizitza bera jokoan jartzeraino irrika zuen desira betetzen uzteagatik. Familia medikuak ohartarazi zion arrisku handia hartuko zuela amatzen saiatuz, ordurako eraso askotxo jasana baitzuen gorputza, eta iradoki ere iradoki zion eman liezaiokeela berak konposaturen bat balizko haurdunaldia, bat gehiago, saihesteko. Iradokizuna biraoa iruditu zitzaion berari, eta medikuari arren eskatu zion ez ziezaiola halakorik aipa gehiago;

xede bakarra zuen kosta ahala kosta haurra ematea senarrari, eta obsesio bilakatu zitzaion betebeharra.

Ama-alabak ikustera ere agertu gabe, emaginak jakinarazi orduko jaioberria ez zela hark irrika zuen semea, Huesca hiriburura abiatu zen Basilio Azaba. Emaztea madarikatuz egin zuen bide osoa, ez zelako gai berari oinordekoa emateko, berak ahalegin guztiak egin arren, urteak baitziren ez zuela jada emaztea desira, noizbait desira izan bazuen. Behartutako ezkontza izan zen; aitak erabaki zuen semea Álvaro Escagüésen alaba oinordekoarekin ezkontzea, haren ale negozio oparoa bereganatzeko. Hogeita bi bete berria mutila, ez zuen izan aitari men egin beste erremediorik, ez bazen aurkitu nahi ezeuki eta xentimorik gabe. Azken batean, transakzio bat besterik ez zen: aberastasuna, agureari pare bat biloba ematearen truke. Zaharra gizon suminkorra zen, benetan, sekula ez zien txera izpitxorik ere adierazi ez emazteari ez seme bakarri, mehatxuka aritzen zen iloba izendatu beharko zuela azkenerako oinordeko, eta gauza zen mehatxua betetzeko. Basiliok bere eginbeharrei ekin, eta desloratu zuen emaztegai izutia, topatu zuelarik ohantzean bere zain, halako batean erabaki zenean harekin elkartzera, ezteietara gonbidatutako lagunekin behar baino gehiago edan ostean; barneratu zen harengan hitzik esan gabe, laztan bat ere gabe, eta lokartu egin zen berehala. Horrela, hainbat astez, harik eta haurdundu zuen arte; ondoren, aitagarrebaren etxandiko beste gela batera aldatu zen gizona, eta senar-emazteek ez zuten logela berean lo egin harezkero. Umea, mutiko bat, jaio eta ordu batzuetara hil zen. Estali zuen senarrak berriro, eta horrela urtea joan urtea etorri, baina bera haurdun gelditzen zen orduko hark hiriko etxera alde egiten zuelarik betiere. Negozio, lagun, maitale eta jaiak betetzen zuten haren denbora, eta ahantzi egiten zen emazteaz. Zaharra hildakoan, mutiko gaztea izandakoa gizon erakargarria bihurtu zen, eta oso

aberatsa; hainbeste, bai baitzituen harem oso bat eta hiru ume, beste hainbat amarenak, mutikoak hirurak.

Alaba jaio zen egunean, hiritik iritsi eta zuzenean joan zen abokatuaren bulegora, sasiko semeak ofizialki ezagutzeko beharrezko dokumentuak presta zituzan eskatzera, eta horrenbestez ahaztu zituen emaztea eta alaba jaioberriaz.

Elisa zoriontsu hazi zen Artadin, amak, aitonak eta zerbitzariak zaindu eta mainatuta. Suhiaren portaera ikusita, eta, hura ongi tematu bazen ere, aitagarrebak uko biribila egin zion etxaldearen gidaritza haren esku uzteari. Are gehiago, testamentu berria egin, eta alaba eta biloba izendatu zituen berak bizitza osoan eraikitako ondarearen oinordeko; ondo baino hobeto lotuta utzi zuen dena, baita ziurtatu ere ez zitzaiela ama-alabei sekula ezertxo ere faltako. Ez zuen pentsatu ezustekorik gerta zitekeenik, baina gertatu egin zen: alaba sukarrak jota hil zen hura zendu eta bi urtera, neskatilak hamahiru zituela.

Neskatilaren tutorea izanik, Basilio Azabak berehala bereganatu zituen neskaren ondasun guztiak; handik aste batzuetara, alaba erakunde erlijioso batean sartu, eta hartaz ahaztu zen berriro. Lau urte igarota erreklamatu zuen, ordea, neskatila hamazazpi betetzear zela; eta iritsi eta bihamunean ezkonarazi zuen haren urteak halako hiru zituen morroi batekin. Legez, morroi hura egin zen emaztearen ondasunen jabe, neskatilak sinatu ostean irakurtzen ere utzi ez zizkioten dokumentu batzuk. Jabe berriak, etxaldeko zaldizain ohia bera, aitagarrebari –bera baino hogeitau urte gazteagoa– «saldu» zizkion ondasun guztiak, eta sorterrira alde egin zuen, berrogeita hamar mila erreal eskuratuta. Handik hila-bete batzuetara jakin zen taberna zuloko liskar batean hil zela.



Neska gazteak zeukan guztia galdu zuen, amaren erretratu margotua gordetzen zuen urrezko medailoi txiki bat eta haren katea izan ezik, aitaren harrapaketatik salbatuak neskak atorraren azpian zintzilik zeramatzalako. Aitak, eskuzabaltasun handiz –halaxe zioen berak–, etxaldean gelditzen utzi zion alabari, sukaldeko neskame, zerbitzariak bizi ziren hegaleko leihorik gabeko gelaxka ziztrin batean. Bide batez ohartarazi zion ez zela askorik komeni etxeko gune nobleetan agertzea.

Eta horrelaxe hasi zen neskatilaren bigarren bizitza, haren etorkizun itxaropentsua hasterako birrindua zela.

Amaren heriotza, komentuko itxialdia, gauetik goizera bere etxean neskame aritu beharra eta, batik bat, aurpegia ere apenas ikusi zion gizon batekiko ezkontza zirela-eta gazte izugarri barnerakoia bihurtu zen garai batean neskatila alaia izandako hura. Begirada ia beti lurrean finko, hitz laburrez erantzuten zuen eta saiatzen zen oharkabean igarotzen, baina erabat ahazten zen bere patu tristez sukaldean, non ematen baitzuen ia egun osoa. Ikasle azkarra zen oso, eta harro zegoen Feliciano, etxeko sukaldezaina, adineko emakume bat, azken urteetan etxandian gertatutako guztiaren lekukoa; alabatzakotzat hartu zuen neska, baita hari erakutsi ere arraina garbitzen, arkumea erretzen, eta prestatzen saltsa eta ongailu, giltzurri pastel, zopa, gozo eta marmeladak. Gaztea bizkor hasi zen eltze eta zartagin artean aise moldatzen, eta asko arindu zion emakume adinduari egin beharra, nekagarria gertatzen hasia ziztaiona denbora bat zela, artritaren erruz. Aurki egokitu zizkieten elkarrri beren zereginak eta ikastuna bihurtu zen maisuaren esku, erre-zetei gehitzeaz gainera halako ukitu pertsonal berezi bat, gonbidatuek biziki estimatzen zutena anfitrioiaren mahaiko bikaintasunak

goresten garaian. Tarteka, Basilio Azaba sukaldera sartzen zen sukaldezaina zoriontzera, baina ez zen sekula arduratzen alabaz, zeina ezkutatu ohi baitzen, zuhur, aita agertu orduko. Ez zion aitek sekula samurtasunik adierazi, ezta alabak nahi ere. Amak esaten zuenez, ureztatu ezean zimeldu egiten da maitasunaren landarea. Ez zuen pentsatzen, ez zuen pentsatu nahi, eta arreta guztia jartzen zuen atsegingarri zitzaion horretan: ogia egiten. Txikitan bezala, artasorora joan, artaburuak bildu, ukuiluan lehortzen jarri, aletu eta alea xehatzen zuen, irina egiteko; gero, irinari ura eta legamia gehitu, eta oratu egiten zuen, harik eta prestatzen zuen arte ore suabe bat, opil forma emanda egur labean sartzeko.

Herriko azokara joaten zen Felicianarekin, eroatera arraina, gatz, espeziak eta etxaldean egiten ez zituzten beste produktu batzuk, herrira gurdietan iristen zirenak hiritik edo Aierbetik. Hala-koetan, ez zen joaten lurrari so: soroei, mendiei, ibaiari, zeruari, saltokietan pilatutako jendeari, plazan korrika zebiltzan umeei, iturri ondoko emakume jostariei begira, zoriontsu sentitzen zen ordu pare batez.

Behin batean, bakarrik bidali zuen sukaldezainak, lanpetuta zegoelako. Urte askoan lehenengoz, libre sentitu zen neska; hainbeste, burutik pasatu ere egin baitzitzaion Artadira ez itzultzea, bidean aurrera jarraitzea, atzera begiratu gabe, baina ez zeukan xentimorik, aitaren administratzailea arduratzen zen fakturak ordaintzeaz. Sosik gabe, inor ezagutzen ez zuela eta aterperik ezean, bere burua imajinatu zuen galdurik, babesgabe; erosketak egin, eta etxaldera itzuli zen. Gehiagotan ere atera behar izan zuen, ordea. Saltzaileekin tratuan aritzeko trebea zela erakutsi zuenez, ez zegoen inork hari laguntzeko premiarik, eta halaxe egokitu zioten azokara joateko ardura, erosgaien zerrenda ere berak idatzita, zeinak utzi baitzuen harrituta haren babeslea, ez baitzekien hark ez irakurtzen

ez idazten. Gazteak maistra batekin ikasi zuen, komentuan sartu aurretik, baina gehiago eta hobeto trebatu zen mojekin, eta pentsatu ere pentsatu zuen ikasketak egin eta maistra izatea, jakinik ameskeria hutsa zela, gizonen kontua baitzen hezkuntza. Familia aberatsetako alabek irakasle partikularrekin ikasten zuten txikitan eta gaztetan; gainerakoak analfabetoak ziren, katixima pixka bat, asko jota, eta, artean panpinekin jolasteko adinean zirela, lanera.

Herrian ezaguna zuten haren historia, jakinean zeuden bar-netegian egona zela, ezkontza laburra izan zuela, familiaritik egotzi zutela eta sukaldari ari zela; eta denek deitoratzen zuten hain neska jantzia izanik halako patu tristea bizi behar izatea. Begirunea zieten haren aitonari eta amari, ez hala orduko jabeari, ez baitzuten ia ikusi ere egiten, ez bazen elizan, jaiegunetan edo egun berezietan, hala nola Arrosario igandean, kofradiako maiordomoa izanik hari zegokionez gurtza lekuaren gastuak ordaintzeko eta pobreei laguntzeko egiten zen arkume haragiaren enkantea gidatzea. Halakoetan, alkatearekin eta beste ondasundun batzuekin agertzen zen, ez zuen inorekin hitzik egiten eta goitik begiratzen zien denei. Eskualdeko ale enpresa handienaren eta irin fabrikaren jabea zen, baita lur hedadura handienarena ere, eta, inguruko herritarren erdiek harentzat lan egiten zutenez, ez zen komeni haren kontraktorik ezer esatea, ahots goran behinik behin. Etxeko babesean, sutondoan, ordea, hitzetik hortzera zebilen alabari ematen zion tratu negargarria, nola lapurtu baitzion herentzia, lotsa gutxirekin, Legez zilegi zen arren, haur eta burutik gaixo zeudenekin parekatzen baitzituen emakumeak. Bestalde, neska ez zen adinez nagusi izango hogeita bostak bete arte, eta ez zegoen haren alde ezer asko egiterik, harekiko begikotasuna sentitzetik haratago.

Zapia buruan, eta soinean zeramatzala artilekizko gona mar-radun bat eta lihozko atorra, Felicianak oparitua, ez baitzioten utzi

bere garaian logela izan zuen gelatik ezertxo ere hartzen, plazara joaten zen ostegunero, puntual, goizeko bederatzietarako, erosketak egiten zituen eta denbora apur bat hartzen zuen oihal, zeramika eta bitxien saltokiak begiratzeko; saltzaileekin eta ongi moldatzen zen emakumeren batekin pixka batean berriketa egin, eta bueltan izaten zen hamabiak punturako, denek angelusa errezetatzeko etena egiten zuten unerako. Ohitura hartu zuen bidetik atera eta artasoroan barrena joatea, oroitzapen zoragarriak ekartzen baitzizkion: aitonarekin joaten zenekoak ernamuinak ongi, zuzen, lerro-lerro hazten ari ziren egiaztatzer, landare artean jostatzen zenekoak edo uzta biltzen laguntzen zuenekoak. Izugarri gozatzen zuen han, bakarrik, txikitik amak irakurtzen zizkion ipuinetako protagonistak bezala sentituz, edozein unetan maitagarria edo kalabaza karroza agertu zain, sinetsi nahirik berari ere gertatuko zitzaioela bizitza goitik behera aldatuko zion halako miragarriren bat. Ezertxo ere ez zen aldatu bere etxean neskame hasi zenetik igarotako bi urteetan, baina udako eguzkiak horitutako artaburuaren artean igarotzen zituen minutu haiek indarra ematen zioten aldaketa irrikatuarekin ametsetan jarrartzeko; eta aldaketa iritsi zen, iritsi, baina ez hark espero bezala.

Ostegun batez, abuztu amaieran, ez zen ohiko orduan itzuli, baina Felician ez zen askorik kezkatu; egun zoragarria argitu zuen, eguzki beroa zegoen, eta Marcelarekin entretenituko zela pentsatu zuen; errementariaren emaztea zen Marcela, eta kariñoa zion Elisari. Felicianak ondotxo zekien gazteak zenbat gozatzen zuen ihesaldi haiekin, ikusi besterik ez zegoen nola itzultzen zen, begiak dizdiz, irribarrea ezpainetan; baina bazkalorduan ere agertu ez, eta urduritzen hasi zen. Arratsalde erdian atera zitzaion bila; ezker-eskuin begira

egin zuen herrirainoko bidea, hari deika, baina hutsik zeuden so-roak, udazkeneko ereinaldiaren zain, eta bere deiadarrek ez zuten erantzunik izan.

Bai, Elisa azokan izan zen, esan zion haren lagunak; beti bezala pixka batean berriketa egin, eta barkilloak jaten aritu ziren, eta ohi bezala agurtu ziren, angelusa baino ordu erdi lehenago, neska bueltan zihoala. Estu eta larri, haren bila abiatu ziren bi emakumeak; iluntzeraino ibili ziren, baina arrastorik ez. Sukaldezaina etxandira itzuli zen, ugazabari abisatzera, eta beste emakumeak alerta eman zuen herrian. Kriseilu eta zuziek argitu zuten gaua, eta bilaketan jardun duten gizon taldeek ehiza zakurrez lagunduta. Ez zuten aurkitu, ordea.

Basilio Azabak ez zuen zirkinik egin; bere gizon batzuk bidali zituen, hori bai, batez ere ez zuelako nahi inor bere lepotik gaizki esaka aritzerik, baina bost axola zitzaion neskaren atarramendua, traba galanta zen beretzat eta, are okerragoa, Artadiren oinordeko bakar eta zilegiarekin izan zuen portaera makurraren oroigarria. Zorte pixka batekin, alde egina izango zen eta ez zuen gehiago ikusiko; edo bero kolpeak jota zerraldo geldituko zen hor nonbait. Bular zimikoa sentitu zuen bigarren aukera hartan pentsatzean; azken batean, odoleko alaba zuen, eder askoa, gainera, amaren izugarrizko antza bazuen ere: begi eder, gerri lirain eta adats gaztaina koloreko gaztea, berak inolako samurtasunik gabe deslortua. Bazuen alaba ezkontzea hirian ezagutzen zituen gizon haietako edozeinekin, gazte nahiz zahar, baina guztiei ikusten zien berearen pareko handinahia, eta inola ere ez zegoen prest bere tankerako suhi bat izateko. Gainera, bilobek ez zuten eramango haren abizena. Tira, esan zuen bere kolkorako, bizitzaren borrokan, indartsuena garaile; gainerako guztiak artaldeko ardi xumeak, ugaldtu eta hiltegian amaitzen zuten ardi ezdeusak; emango zizkieten oinordekoak semeek,

bereziki zaharrenak, eta mugarik gabe handituko zuen bere inperioa.

Desagertu eta biharamunean, goiz erdian, artasoroan topatu zuen nekazari batek. Inguruan biraka hegan zebilen bele aldrak arreta eman, eta abere hilen bat ote zegoen pentsatu zuen. Haren harrimena eta izu larria, neskatxa aurkitu zuelarik erdi biluzik eta odolduta; estali zuen bere jakarekin, joan zen abisua ematera, eta, handik puska batera jaso zuten etxandiko gizonek neska, sorgor baina bizirik. Felicianak, begiak malkotan, bere logelara eramateko agindu zien, handiagoa eta argitsuagoa baitzen neskak lotarako erabiltzen zuen gela zuloa baino. Enplegatuetako batek zaldia tresnatu zuen, eta herriko medikuarekin itzuli zen handik denbora gutxira, baita hark ebatzi ere neska gaztea behin eta berriz bortxatu zutela eta odol asko galdu zuela. Eztia emateko agindu zuen, eta kama-mila, erromero eta menda tisanak, ahultasun hartatik nolabait oneratzeko, eta atsedena behar zuela ere esan zuen. Neskameetako baten laguntza, Felicianak neska garbitu, eta erreduretarako gorderik zuen ilenezko pomada bat eman zion emakuntzan. Ondoren, jantzi zion flanelazko ohe atorra bat, eta, koilara batekin, saiatu zen oilo salda pixka har zezan, alferrik. Gau osoa eman zuen gaztearen oheburuan, madarikatuz gajo babesgabe hura txikitu zuen edo zuten gizonak, lapurtu baitzioten gelditzen zitzaion gauza bakarra, ondra.

Elisa oneratu zen, eta pare bat asteren buruan sukaldean zebilen atzera, azken hilabeteetako haren itzala besterik ez bazen ere; desagertu zitzaion irribarrea ezpainetatik, eta buruaz baietz edo ezetz soilik egiten zuen, txintik ere esan gabe, norbaitek zerbaitez esaten zionean. Ez zen itzuli azokara, ezta artasorora ere, eta ogia egiteari utzi zion; haurdun zegoela ere ez zen konturatu, Feliciano ohartu zen. Logela Elisarekin partekatzea erabaki zuen sukaldezainak gertaera

lazgarriaren ondoren, pentsaturik neskaren gela ez zela toki egokia eta, horrez gainera, horrela zaintzapean eduki ahal izango zuelako une oro, eta beilatu haren loa, tarteka asaldaturik, eta hari hitz egin, erantzunik jaso ez arren. Konturatu zen neskaren sabelaren bolu-mena handituz zihoala txori txiki batek bezala jaten zuen arren, eta, kontuak atera, eta ez zuen zalantzarik izan: babespekoa haurdun zegoen, hiru bat hilabeteko. Burutik pasatu zitzaion borraja salda ematea edo emabidean apioa eta perrexila sartzea, baina hobeto pentsatu zuen gero: abortuak espetxe zigorra zekarren, baita heriotza zigorra ere, bai hilaurtzen zenarentzat bai hilaurtzea eragiten zuenarentzat. Bestalde, gerta zitekeen bere barneko bizitza berri hark behar zuen indarra ematea neskari. Eta orobat pentsatu zuen nola kontatu behar zion hura ugazabari eta zer erreakzio izango ote zuen hark, jakitean alaba sasiko batez erdituko zela.

Buruari buelta eta jira ibili ostean, erabaki zen halako batean. Lehenago edo geroago, handik alde egin beharra egokituko zitzaion; gero eta baldarrago mugitzen zen eta aurki ezingo zituen eskuak baliatu, ez behintzat sukaldarako; egotzi egingo zuten, ziur zegoen horretaz, ugazabak ez zuen-eta gupidaririk. Etxean zeramatzan urteetan, ia bizi osoa, denetik ikusia zen. Aurreko jauna arduratzen zen bere langileen alargunez, umezurtzez, min hartutakoez, eta montepioa sortu zuen, halako egoeretan bizilekurik eta jatekorik falta ez zekien; baina oraingoak laguntza guztiak kendu zituen jabetza bere gain hartu bezain laster. Are gehiago, egotzi egiten zituen haurdun gelditzen ziren langileak, gaixotasun luze edo zauri larriak zituztenak, eta ez zuen zalantzarik alaba ere kanporatuko zuela, hari gerta zekiokkeenaren kezkarik txikiena gabe. Handik egun batzuetara, egunsentian, bildu zituen bere puskak eta ohe azpian kutxa batean gordeta zituen aurrezkiak, heldu zion neska gazteari eskutik, eta Artaditik alde egin zuten biek.

Sukaldezaina eta laguntzailea desagertzeak istilu txoa sortu zuen eguerdia pasatua zela otorduak zerbitzatzeko ardura zuen neskamea, sukaldean sartu eta aurkitu zituelarik hura hutsik eta suak itzalita, korrika batean joan zenean ugazabari berri ematera. Basilio Azabak birao egin eta ukabilkada bat jo zuen idazmahaian, izuak dantzan jarrarazi zituena nola neskamea hala idazkaria, zeina une hartantxe ari baitzen aleen esportazioan ziharduen enpresa handi batekiko kontratua idazten; egun hartarako espero zuten, hain zuzen, enpresaren jabea bazkaltzera. Inork ez zuenez aurreikusitako menuaren berri eta are gutxiago, osagaien berri (barazkiak, arraina, haragia, postreak), jaunak bi morroi bidali zituen herriko ostatura gurdi batekin. Enpresaburua ez zetorren bakarrik; harekin etortzekoak ziren emaztea, salmenten arduraduna eta kontularia, eta zerbitzatu beharko zieten, jakina, arrautza frijitu ziztrin batzuk baino zerbait hobea. Itzuli ziren morroiak, gurdian zeramatela eltzekada bat tipula zopa, beste eltzekada bat haragi gisatu, eta erretilu bat sagar egosi: tabernan egunero izaten zituzten dozena bat bazkaltiarrentzat prestatutako menua. Hasieran, ostatujabeak ez zien eman nahi egunerako prestatutako otordua morroiei, baina onartu zuen, negozioa erreka jota ikustearen eta gauza okerragoen mehatxuek izuturik. Ez zen gonbidatuen dui-neko oturuntza, baina ez zegoen besterik. Anfitrioniak aitzakia jarri zien bertako produktu tipikoak eskaini nahi zizkiela gonbidatuei, eta lasai arnasa hartu zuen ikusirik, itxuraz, gustura hartu zituztela haiek jakiak, bikain prestatuak baina, zalantzarik gabe, bere mahairako guztiz desegokiak.

Biharamunean sukaldari berria kontratatu, eta halaxe konpondu zuen dena; eta poztu ere poztu zen alaba etxepean eduki behar ez izateaz: berari zegokionez, amaituak zituen harekiko guztiak. Ez zion kontzientziak ausiki egingo, eta, are hobea zena, libratuko



zen neskak hogeita bost urte betetzean bere kontrako inolako erreklamaziorik egiteko arriskutik. Haren herentziaren «salmენტaren» izapideak ez ziren garbi-garbiak izan, eta abokatu on batek egiaztatu ahal izango zuen iruzurra. Egoera berria ospatzeko, hirira joan, eta azken maitalearekin igaro zuen gaua.

Felicianak eta Elisak zenbait egun behar izan zituzten Buisánera iristeko; huraxe zen emakumearen jaioterria, hogeitaz bixtanle eskaseko herrixka bat, Huescako Pirinio inguruetakoa mendietan kokatua eta basoz inguratua. Hantxe, arbasoen harri eta arbelezko etxe zaharrea –zutik baitzen artean, egoera penagarria bazen ere–, bizitza berri bati ekin zioten bi emakumeek. Auzokoek ez zuten galdetu; kokatzen lagundu, eta eman zizkieten tapakiak, egurra, esnea, eztiak, gazta, babarrunak, txerri haragi ondua eta xingarra, pozarren, ikusirik herritarren kopurua handitzera zihoala, batez ere, neska gaztearen sabeleko umearekin, lehena urtetan. Neska-mutilek herritik alde egiten zuten lanean hasteko adina bete bezain laster, sos batzuk aurreztutakoan itzultzeko hitza emanda, baina aitona-amonak hil, gurasoak zahartu, eta inortxo ere ez zen hara itzultzen.

Pare bat astean etxea teilaberritu, tximinia garbitu eta altzari eta lanabesak eskuratuta, auzokoengandik haiek ere, berriro hasi ziren etxean ahotsak entzuten, tximinia kea botatzen eta kandelen argia iluntzean barnealdea argitzen. Bien artean etxe ondoko baratze txikia jorratu, eta landatu zituzten ziazerbak eta tipulak, baratxuriak eta kalabazak, baita ardia erosi ere artzain bati, zeina Ebroko lurretara baitzihoan abelbidean barrena, elurteak hasterako, neguko elur geruza lodiak bideak estali aurretik. Ez zuten askorik behar eta, hotz handiak etorriko zirenez, sukaldean atondu zuten, ohe eta guzti, eta ardia txakur bezatua balitz bezala beraiekin bizi

zedin utzi zuten. Neke handirik gabe lortu zuten, halaber, artilea, mandioan topatutako goru kaskar batean iruten zutena, egiteko galtzerdi, xal, atorra eta, batez ere, udaberrian jaioko zen haurra-  
rentzako arropa.

Eta ezinezkoa zirudiena gertatu zen. Elisa atera zen bere ba-  
kartzetik, berreskuratu zuen galdutako pisua eta irribarrea marraztu  
zitzaion berriro aurpegian. Zoratzen zegoen Feiliciana, eta bere bu-  
ruaz harro asko, etxaldetik alde egitea erabaki izanagatik. Ilunsentia  
iristean, sutondoan jartzen zirenean biak josten, Buisángo txikitako  
oroitzapenak etortzen zitzaizkion emakumeari gogora, eta lur eder  
bezain gogor hartako antzinako esaerak, elezaharrak, ohiturak  
kontatzen zizkion ordurako alabatzakoa zuen hari.

Hitz egin zion hiru ahizpez, Treserols zeritzenez: hiru neska  
gazte, bat egin zutenak herritarrak sarraskitu zituzten gudari atze-  
rritarrekin eta aitaren mamuak zituenak madarikatu eta mendi  
bihurtu; baita Silbán erraldoiaz ere, nola maitemindu zen neska-  
tila artzain batez eta nola erantzun zion gazteak erraldoiaren mai-  
tasunari hura akabatuz, esne lapiko pozoitu bat eskainita; eta  
«elurretako loreaz», munduko ederrena, zeinak gau batez Ilargiari  
esan baitzion Lurraren, gizakien eta animalien bekaitz zela eta  
bihurtu baitzuen argizagi hark lore zuri, eta landatu Pirinioen gai-  
lurrean, baina kondenaturik betirako bakarrik bizitzera, harkaitzak  
eta izotza beste lagunik gabe. Eta hitz egin zion, halaber, Bosne-  
rau edo Basajarau basoetako jaunaz, zeinak txistuka ohartarazten  
baitzien artzainei ekaitza edo otsoak zetoze eta erakutsi baitzien  
gizakiei zura lantzen, burdina galdatzen eta lurra ereiten. «Hosto  
irtete, arto ereite; hosto erortze, gari ereite», bota zuen halako ba-  
tean, konturatu gabe bere haurtzaroko zorionaren eta etsipenik  
handienaren lekuko izandako landarearen izena entzutean gazteak  
jarritako nahigabezko keinuaz.